

2021eko uztailaren 15etik irailaren 15era

OPORKLIK!

Udako argazki-hizki lehiaketa

Oinarriak

Oihaneder Euskararen Etxeak, Gauekoak aisialdi-programak eta ALEA komunikazio taldeak elkarlanean antolatutako lehiaketa.



OIHANEDER
EUSKARAREN
ETXEA
GASTEIZKO
KAFE ANTZOKIA



GAIA

2021eko udan egindako bidaien kontaketa argazkien eta hitzen bidez egitea.

PARTE HARTZEKO MODUAK ETA BALDINTZAK

✓ 2021eko uztailaren 15etik irailaren 15era, biak barne.

✓ Adinaren arabera **bi kategoria** izango dira:

- ▶ 16-30 urte bitartekoak
- ▶ 30 urtetik gorakoak

✓ Parte hartzeko **bi modu** izango dira:

▶ **Argazki bakarra + euskarazko izenburua**

- ▷ ALEAren webgunean propio egongo den atalean igo beharko dira argazkiak.
- ▷ ALEAren webgunean eginiko bozka herrikoiak erabakiko ditu onenak.

▶ **Bost argazki + azalpen testua**

- ▷ Epaimahai profesional batek aukeratuko ditu lau lan irabazleak.
- ▷ Argazki sorta eta testuak gure webguneetan estekatua egongo den online formulariora igo beharko dira.
- ▷ Argazkiak editatu daitezke, gutxienez 300 ppx izan behar dituzte eta JPG edo PNG formatuan aurkeztu behar dira.
- ▷ Argazki-sortari eta argazki bakoitzari euskarazko izenburua jarri behar zaio.
- ▷ Argazkiekin batera egindako bidaiaren azalpen laburra bidali behar da (1500-2000 karaktere artean).
- ▷ Egilearen honako datuak zehaztu behar dira: izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta e-posta, jaiotze data eta ohiko bizitokia.

2021eko uztailaren 15etik irailaren 15era

OPORKLIK!

Udako argazki-hizki lehiaketa

Oinarriak

- ▷ Ez da kontuan hartuko izenburu edo/eta bidaiaren azalpenik gabeko argazki-sortarik.
- ▷ Nahi beste argazki-sorta bidal daitezke. Egile beraren lan bat baino gehiago saritua suertatzekotan, sari bakarra jasoko du.

✓ Edozein Euskal Herritako euskaldun orok har dezake parte lehiaketan.

EPAIMAHAIA ETA EPAIA

✓ Epaimahaia Oihaneder Euskararen Etxeko teknikari batek, Arte eta Lanbide Eskolako irudi saileko irakasle batek, Gauekoak aisialdi programako kide batek eta ALEA komunikazio Taldeko kide batek osatuko dute.

✓ Epaia ematerako orduan baloratuko dena:

- ▶ Argazkien originaltasuna, kalitate artistikoa eta teknikoa
- ▶ Gaiarekiko lotura
- ▶ Bidaiaren inguruko azalpena

✓ Epaia 2021eko irailaren 24an jakinaraziko da.

SARIAK

✓ Lau sari emango dira parte hartze mota bakoitzeko (**adin tarte bakoitzeko bina**). Guztira **zortzi** sari.

▶ **Argazki bakarra + euskarazko azalpena:**

- ▷ **GO-PRO** motako kamara + **PARRAL** jatetxean bi lagunentzako bazkaria (2 sari)
- ▷ **GO-PRO** motako kamara + **MUSEO DEL ORGANO** jatetxean 2 lagunentzako bazkaria (2 sari)

▶ **Bost argazki + azalpen testua**

- ▷ **AZALA** landetxean gau bateko egonaldia (gosaria barne) + **CANDIDO BESA** upategian lau lagunentzako bisita eta ardo-dastaketa (Sari 1)
- ▷ **GUIKURI** landetxeko apartamentuan gau bateko egonaldia + **ARTEPAN**-en bi lagunentzako gosaria + produktu sorta (Sari 1)
- ▷ **AZALA** landetxean gau bateko egonaldia (gosaria barne) + **ARTEPAN**-en bi lagunentzako gosaria + produktu sorta (Sari 1)
- ▷ **LA LEZE** kobazuloko jaitsiera bi lagunentzat **INGURU ABENTURA**ekin + lau lagunentzako bisita eta ardo-dastaketa **CANDIDO BESA** upategian (Sari 1)

2021eko uztailaren 15etik irailaren 15era

OPORKLIK!

Udako argazki-hizki lehiaketa

Oinarriak

✓ Sariak ezingo dira metatu.

✓ Irabazleak ezingo balu sariaz gozatu hirugarren pertsona bati emateko aukera izango du antolakuntzarekin horrela adostuz gero.

ARGAZKI ERAKUSKETA

✓ Argazki-hizki lehiaketan saritutako lanekin argazki erakusketa egingo da Montehermoso Kulturunea-Oihaneder Euskararen Etxean **urriaren 27tik azaroaren 14ra bitartean**.

✓ Pantaila digital batzuetan lehiaketara aurkeztutako partaide guztien argazki aukeraketa bat jarriko da.

OHARRAK

✓ Lehiaketa edo oinarri hauei buruzko edozein galdera argitzeko honako posta elektronikora jo dezakezue: oihaneder@oihaneder.eus edo telefono honetara deitu: 615 986 831

✓ Aurkeztutako argazkiak ALEA eta Oihaneder Euskararen Etxearen esku geratuko dira, eta argazki horiek erabiltzeko eskubidea beretzat gordeko du, betiere egilearen izen-abizenak aipaturik.

✓ Lehiaketaren antolatzaileek argazkien baliozkotasuna erabakiko dute. Argazkiren batek baldintza teknikoak beteko ez balitu, edo edozein arrazoirengatik (iraingarria izateagatik, esaterako) lehiaketaren izaerarekin bat ez datorrela iritziko balute, ez argitaratzea erabaki ahalko dute.

✓ Parte hartzeak oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar.

✓ Antolatzaileek bere esku izango dute oinarri hauetan jaso ez den edozein gorabehera ebaztea.

ANTOLATZAILEAK



OIHANEDER
EUSKARAREN
ETXEA
GASTEIZKO
KAFE ANTZOKIA



ALEA
arabako aldiakaria

